

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

SEGURTASUN SAILA

3319

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 17ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat Brigada Mugikorrean Espezializatzeko Ikastaroetan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egiten duena.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 23.artikuluaren xedatutakoan oinarriturik, eta Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzak ezarritako helburuak ikusirik; Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat, Brigada Mugikorreko Espezializazio Ikastaroetan sartzeko hautaketa-prozeduran parte hartzeko deia egiten da, ondorengoak kontuan izanik:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

1.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Ikuskapen Eskalako Karrerako funtzionarioentzat, oposizio bitartez, Brigada Mugikorreko Espezializazio Ikastaroetan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egiten da.

2.– Deitutako ikastokiak 200 dira guztira, ondoren xedatzen denaren arabera:

- 167 plaza, Ertzaintzaren agente Kategoriako karrerako funtzionarioentzat..
- 25 plaza, Ertzaintzaren agente lehena Kategoriako karrerako funtzionarioentzat.
- 4 plaza, Ertzaintzaren ofizialondoko Kategoriako karrerako funtzionarioentzat.
- 4 plaza, Ertzaintzaren ofizial Kategoriako karrerako funtzionarioentzat.

Bigarrena.– Izangaien betekizunak.

1.– Hautaketa-prozeduran onartuak izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Aldez aurretik eskaera egitea.

b) Ondorengo administrazio-egoeratariko batean egotea:

b.1.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriarako erreserbatutako 167 plazen hautaketa-prozeduran parte hartu ahal izateko, kategoria horretan karrerako funtzionario izendatuta egotea eta kategoria horretan administrazio-egoera aktiboan jardutea.

b.2.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente lehena Kategoriarako erreserbatutako 25 plazen hautaketa-prozeduran parte hartu ahal izateko, kategoria horretan karrerako funtzionario izendatuta egotea eta kategoria horretan administrazio-egoera aktiboan jardutea.

b.3.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako ofizialondoko Kategoriarako erreserbatutako 4 plaza hautaketa-prozeduran parte hartu ahal izateko, kategoria horretan karrerako funtzionario izendatuta egotea eta kategoria horretan administrazio-egoera aktiboan jardutea.

b.4.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako ofizial Kategoriarako erreserbatutako 4 plaza hautaketa-prozeduran parte hartu ahal izateko, kategoria horretan karrerako funtzionario izendatuta egotea eta kategoria horretan administrazio-egoera aktiboan jardutea.

c) Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 65.5 artikulua arabera, lanean gutxieneko aldia egon beharra ezarriko duen lanpostuari atxikita ez egotea izangaia.

d) Indarrean dagoen BTP gidabaimena izatea.

e) Brigada Mugikorreko hiru deialdi baino gehiagotan parte hartu gabe egotea. Deialdi bat agortuzat emango da, eta zenbatgarritzat joko da, funtzionarioa ikastaroan parte hartzeko ontzat ematen den kasuan. Ez ordea, deia egiten duen organoak ikusten badu, nahi gabeko kausa dela-eta, izangaia ikastarora ez dela bertaratu edo ikastaroa ez duela amaitu. Hala denean, behar bezala justifikatuta egon beharko du.

f) Deialdi honetako I. eranskinean aipatutako baztertze medikuen taulan ez egotea.

2.– Hautaketa-prozeduran parte hartzeko aurreko atalean ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik.

3.– Hautaketa-prozeduran onartua izateko eta parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek, beren eskabide orrian, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraztea, beti ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete beharko dituzte. Bi aldeok ziurtatzea deitzen duen organoaren eginkizuna izango da, eta ofizioski ziurtatuko du dagokionean Giza Baliabideen Zuzendaritzari eskatuz.

Honek ez du eragotziko hautaketa-prozeduran zehar, prozedura horretan parte hartzen duenari, beharrezkotzat jotzen diren azterketa medikoak egitea, ebazpen honetako Bigarren Oinarriko 1.f) puntuan adierazitako baztertze medikuen taularen barruan dagoela egiaztatzeko. Egiaztatze hori Giza Baliabideen Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek egingo dute; hau da, eragindako pertsonen betekizuna, Zuzendaritza horrek ziurtatuko du.

4.– Hautaketa-prozeduraren uneren batean, onartutako eta baztertzeko zerrenda egiten duen organo eskudunak jakingo balu izangaietariko bati deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzen bat falta zaiola, hautaketa-prozesutik kanpo utziko luke, eta, hala badagokio, prestakuntza ikastarotik baztertu egingo luke, betiere, interesatuari entzun ondoren.

Hirugarrena.– Eskabideak.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek, sailen arteko intraneten bitartez -Gurenet- eta horretan azaltzen den eskabide eredu erabiliz egin beharko dute eskaria.

2.– Eskabideak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

3.– Eskabidean zehaztu egin beharko dute zein hizkuntzatan egin nahi duten banakako elkarrizketa ariketa, gazteleraz edo euskaraz.

Laugarrena.– Izangaiak onartzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak, onartu eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda onartuko du eta zerrenda hori, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuko da.

2.– Behin-behineko zerrendan baztertuta agertzen diren izangaiei dagozkien arrazoiak adieraziko zaizkie, eta interesatuek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabideak izan ditzakeen hutsak zuzentzeko.

3.– Aurkeztutako erreklamazioak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez onartu edo baztertuko dira, eta horren bitartez Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuta agertuko den onartutako eta baztertutakoen zerrenda behin betikoa izango da.

Bosgarrena.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren eta Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legean aurreikusitakoen arabera, hautaketa sistema erabakitze, garatzeko eta ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzaile bat izendatuko da. Epaimahai hori mahaiburu batek, lau bokalek eta idazkari batek osatuko dute.

Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kideen eta ordezkioen izendapena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuko da eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren ebazpen baten bitartez egingo da.

2.– Epaimahai Kalifikatzailearen jardunak organo kolegiatuen funtzionamenduko araudi erregulatzailean indarrean diren xedapenak aintzat hartuko ditu.

Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 28. eta 29. artikuluetan bildutako abstentzio eta errefusatzeko kausak ezarriko zaizkie.

3.– Hautaketa-sistemaren garapena eta ebaluaketa, Epaimahai Kalifikatzaileari dagozkio, eta horrek, jarduteko autonomia osoa izango du. Prozeduraren objetibotasunaz Epaimahai Kalifikatzailea arduratuko da, baita deialdiko oinarriak betetzea bermatu ere.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak, bere jardunerako –hautaketa-sistema osatzen duten probetarako–, aholkulari edo adituen laguntza izan dezake. Horien lana, beren berezitasun-jarduna ikusirik, aholkatzea eta teknikoki laguntzea izango da.

5.– Deialdiaren oinarrietan aurreikusten ez diren alderdiei dagokienez, hautatzeko sistema burutzeko beharrezko jotzen dituzten neurriak hartu, eta oinarri horiek ulertu eta ezartzerakoan sortzen diren arazo guztiak ebatzi ahal izango ditu epaimahaiak, baita bere funtzioen jarduna ere.

6.– Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuko dira.

7.– Aipatutako Epaimahai Kalifikatzailean parte hartzen duenak, legez aurreikusitako ordainsaria izango du.

Seigarrena.– Hautatzeko sistema.

1.– Hautatzeko sistema oposizio bitartez izango da. Oposizio horretan izangaien gaitasuna eta beraien arteko lehenetasun hurrenkera zehaztuko dira

2.– Oposizioan segidan ondorengo proba hauek egin beharko dira:

a) Lehenengo proba. Derrigorrezkoa eta baztertze izaerakoa. Gaitasun fisikoa neurtzeko proba, 0tik 50era bitartean baloratuko da. Ebazpen honetako II. eranskinean adierazten diren ariketa fisikoak egingo dira.

Izangaiek euren ardurapean bakarrik egingo dituzte ariketa fisikoak eta horretarako egokia den kirol ekipoz horniturik bertaratu beharko dute.

Lehenengo proba honetan, bi ataletan banaturiko bost (5) ariketa egin beharko dira.

Lehen atalean, lau ariketa egin beharko dira; hiru, indarra neurtzekoak, eta, laugarrena, abiadura-bizkortasuna lantzeko. Atal hau osatzen duten lau ariketok 0tik 10 puntura bitartean baloratuko dira. Atal hau gainditzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira. Era berean, lau ariketatik bitan gutxieneko hiru puntuak ez lortzea ere proba ez gaindituztat joko da.

Bigarren atalean, ariketa bakarra egin beharko da, erresistentzia aerobikoa neurtzeko izango dena. Ariketa hau 0tik 10 puntura bitartean baloratuko da. Atal hau ez gaindituztat joko da ariketa honetan gutxienez bost puntu lortzen ez badira.

Gaitasun fisikoaren proba gainditzeko proba hori osatzen duten atal bakoitza gainditu beharko da.

b) Bigarren proba. Derrigorrezkoa eta baztertze izaerakoa. Test psikoteknikoak egingo dira, Brigada Mugikorraren eginkizunetarako gaitasunak baloratzeari begira.

Bigarren proba 0tik 20 puntura bitartean baloratuko da, eta, gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortzea ezinbestekoa izango da.

c) Hirugarren proba. Derrigorrezkoa eta baztertze izaerakoa. Proba honetan, nortasun ezaugarriak eta orekarik ez izatearen beste adierazle batzuk ebaluatuko dira eta izangaiaren jokaera eta izaera egokitasunak zehaztuko dira. Honelako ariketak egingo dira: test psikologikoak eta banakako elkarrizketak.

Hirugarren proba 0tik 20 puntura bitartean baloratuko da, eta, gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortzea ezinbestekoa izango da.

Test psikologikoak banakako elkarrizketa baino lehenago egingo eta zuzenduko dira.

Banakako elkarrizketa egin aurretik, eta hala eskatuko da, elkarrizketa egiteko tresna gisa erabili ahal izateko, prozesuan parte hartzen dutenek «curriculum vitae» single bat beteko dute. Esandakoa egiteko formatu arautua erabiliko da eta ez da izango inolaz ere puntuagarria.

3.– Oposizioko proben garapena.

a) Lehenengo azterketa noiz, zein ordutan eta non egingo den gutxienez zazpi egun natural lehenago iragarriko da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean. Ondorengo azterketak noiz, zein ordutan eta non egingo diren gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago iragarriko dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean.

b) Epaimahai Kalifikatzaileak deialdi honetan ezarritakoa ez bezala egin ahal izango ditu proba edo oposizioa osatzen duten ariketa desberdinak; hau da, ordena desberdinean eta egun berean proba bat baino gehiago egin edo ez egin. Azken honetan, emaitzak agertuko dira aurreko proba gainditu duten neurrian.

c) Epaimahaiak derrigorrezko probak edota ariketak egiteko finkatutako tokian, datan eta orduan agertzen ez diren izangaiak hautaketa-prozeduratik baztertuta utziko ditu behin betiko, baztertzea ezinbestekak bultzaturik gertatzen denean ere. Arau bera aplikatuko zaie edozein derrigorrezko probetara edo ariketetara berandu bertarutzen diren izangaiei.

d) Oposizioegileek identitatea egiaztatzen duten agiria eraman beharko dute proba guztietara, Epaimahai Kalifikatzaileak noiznahi eska baitiezaieke hori erakusteko.

e) Proben emaitzak, Epaimahai Kalifikatzailearen Akordio bitartez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratuko dira.

Zazpigarrena.– Euskararen ezagutza baloratzea.

Euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko da, eta, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskaki-zuna egiaztatuta dutenei, 9 puntu emango zaizkie; betiere, egiaztatzea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eginez gero. Hala egingo da euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko azaroaren 9ko 297/2010 (2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.) ezarritakoaren arabera egiaztatutzat edo baliozkotzat eman zaienei.

Hautaketa-prozesuan, ez da euskararen ezagutza egiaztatzeko inolako probarik egingo.

Zortzigarrena.– Oposizioaren azken kalifikazioa.

1.– Lehiaketako guztirako kalifikazioa izango da proba edo ariketa desberdinetan lortutako puntuaketaren batuketa, eta, hala doakionean, euskararen ezagutza merezimendu gisa ebaluatzetik gehitzen dena, guzti horrek zehaztuko duelarik izangaien lehentasun-hurrenkera.

2.– Lehentasun hurrenkerako puntuazioen berdinketak Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean bildutako irizpideekin bat etorritik erabakiko dira. Berdinketak jarraituz gero, gaitasun fisikoaren probetan puntuaziorik altuena lortzen duenak irabaziko du.

3.– Hautaketa-sistemaren kalifikazioa amaitzen denean, epaimahaiak, honako hauek onartu eta argitaratuko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki- taulan eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari igorriko dizkio:

a) Hautaketa-sistema gainditu duten izangaien zerrenda. Puntu gehien lortu duenetik gutxien lortu duenera antolatuta egongo da. Kategoria desberdinetako plazetan parte hartzen duten pertsonen emaitzak desberdinduko dira.

b) Hautaketa-sistema gainditu ondoren eta sailkapen hurrenkerari jarraituz, deitutako ikastoki-kopuruan sartzen direnen zerrenda lehentasun hurrenkera eta kategoria bakoitzean deitutako plaza-kopuruan tokia dutenak. Kategoria desberdinetako plazetan parte hartzen duten pertsonen emaitzak desberdinduko dira.

c) Hautaketa-sistema gainditu ondoren eta sailkapen hurrenkerari jarraituz, deitutako ikastoki kopuruan sartzen ez direnen zerrenda lehentasun hurrenkera eta kategoria bakoitzean deitutako plaza kopuruan tokirik ez dutenak. Kategoria desberdinetako plazetan parte hartzen duten pertsonen emaitzak desberdinduko dira.

4.– Baliabideen eraginkortasunaren printzipioa aplikatuz, hautatutako izangaien zerrendetan edozein arrazoiengatik sor daitezkeen bete gabeko lanpostuak bete ahal izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren Ebazpenaren bitartez, deitutako plaza guztiak

bete arte, aurreko puntuko c atalean ezarritako lehentasun-hurrenkera jarraituz, Kategoria horretako lanpostu hutsa hurrengo dauden izangaiekin bete arte.

Bederatzigarrena.– Brigada Mugikorreko Espezializazio ikastaroak.

1.– Hautatuak, Zortzigarren Oinarrian dioenaren arabera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariak deituko ditu ebazpen baten bidez, Brigada Mugikorreko Ikastaroak egiteko.

2.– Ikastaroetarako hautatutakoen izendapena, hautaketa-prozesuan parte hartuko duten kategorien artean, ikastaro bakoitzeko plazak proportzionalki banatuz egingo da, eta, hautatutakoek lortutako lehentasun-hurrenkeraren arabera, kategoria bakoitzerako dauden plazak esleituz.

3.– Edozein arrazoiengatik ikastaro bakoitzari esleitutako plazak hutsik geratuko balira, plaza horiek aurreko puntuan ezarritako irizpideak jarraituz beteko dira.

4.– Zortzigarren Oinarriko 3.b. puntuan aipatutako pertsonen zerrenda agortuta izateagatik ikastaro bakoitzeko plazak bete ezinik geratzen badira, plaza horiek Zortzigarren Oinarriko 3.c. puntuan aipatutako zerrenda osatzen duten pertsonekin beteko dira, oinarri honetako bigarren puntuan ezarritako esleipen ordenaren arabera.

5.– Esleitutako ikastaroan sartzeko hautatutakoei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko die, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bitartez.

6.– Brigada Mugikorreko Espezializazio Ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo dira edo zuzendariak erabakitzen duen egoitzan, Ikasketa Planean aurreikusitakoaren arabera.

7.– Ikastaroen azken emaitzak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuko dira.

8.– Ikastaroen esleipenetan ez da aldaketarik onartuko, Lan eta familiaren arteko adiskidetzeari buruzko 39/1999 Legetik zuzenean eratorritako kasuetan izan ezik. Kasu horien jardutea eta ondorioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren ebazpen baten bitartez arautuko dira.

Hamargarrena.– Brigada Mugikorreko Espezializazio ikastaroak gainditzea.

Brigada Mugikorreko Espezializazio ikastaroak gainditzeak ez du berez lanpostu jakin bati edo espezializazio hori betekizun bezala duten lanpostuetako eginkizunak burutzeari atxikitze esku-biderik. Hala ere, ikastaroa gainditzeko dutenek, lehenengoan egiten den deialdian, halaber beharrez egin beharko dute eskaera, 65. artikuluan bildutako ohiko sistemen bitartez zein 4/1992 Legearen 72. artikuluan aipatzen diren aparteko sistemaren bitartez, eta lehentasunezko izaerarekin eskatu beharko dira jasotako prestakuntza eta ezagutzak dituzten lanpostuak betetzeko diren lanpostu hutsetan. Horrela egin ezik, edozein lanpostutara atxikituak edo izendatuak suertatu ahal izango dira. Azken kasu honetan, ez da izango inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik.

Hamaikagarrena.– Azken xedapenak.

1.– Prestakuntza-ikastaroak dauden bitartean, hautatutako izangaia ikasle gisa dagoenean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Barne Araudiaren Erregelamenduko barne errege-lamenduko arauen menpe egongo da. Araudi horrek gehigarritzko izaera edukiko du, hain zuzen, Euskal Herriko Poliziaren Kidegoen Diziplinazko Erregelamenduko Arauetan, egintza ikasle-diziplina baino gehiago izan ahal den kasuetan.

2.– Deialdi honetan parte hartzeak borondatezko izaera du; beraz, Ertzaintzaren zerbitzuko langileen zerbitzuengatik kalte-ordainketei buruzko urtarrilaren 5/2012 Dekretua aplikatuz, hautaketa-prozesuaren garapena eta amaitzea direla-eta, parte hartzeagatik eta azterketengatik, ebaluazio probengatik edo proba praktikoengatik eta prozesurako edozein ekintzagatik ez da inolako kalte-ordainik jasoko.

3.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesatuek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari, argitaratuta agertu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, edo, hi hilabeteko epea izango dute, zuzenean administrazioarekiko auzigaietarako orden juridikzionalaren aurrean aurkaratzeko. Azken honetan, Administrazioarekiko Auzien Epaitegietako lurralde-eskumenetako arauak hartu beharko dira kontuan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan bildutakoak.

Deialdi honetatik, Epaimahai Kalifikatzaileen jardueratik eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organoetatik ondorioztatzen diren egintza administratibo guztiak aurkatu ahal izango dituzte interesatuek, administrazio prozedura erkideari buruzko arautegian ezarritako era eta kasuetan.

Arkauti, 2013ko uztailaren 17a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIAN.

I. ERANSKINA**MEDIKUNTZAKO BAZTERKETEN TAULA****LEHENENGO ZATIA: «ANTROPOMETRIA»**

1.– Gorputz masari dagokionez, baztertu egingo dira (GMI) 28tik gorako indizea badute eta koipetan%23 baino gehiagokoa badute gizonezkoen kasuan eta emakumezkoetan % 31 baino gehiagokoa badute. Guzti hori inpedantzia bioelektrikoaren bitartez eginik.

GMI formula honekin lortuko da:

$$\text{GMI.} = \frac{\text{Pisua (kg-tan)}}{\text{Garaiera 2 (metrotan)}}$$

Pisua barne-jantzitan neurtuko da.

BIGARREN ZATIA: «MEDIKU AZTERKETA»*A.– Bazterketa orokorra.*

1.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzeko mugak jartzen dituzten gaixotasun, sindrome eta gorputz-akatsak izatea.

Era berean, alterazio horiek baztertzeko arrazoitzat jo ahal izango dira hautaketa prozeduraren edozein alditan (hautaketa, prestakuntza) agertzen direla ere.

2.– Inguruabarreko baztertzetat joko dira, azterketa egiterakoan bazterketa-taulan sartuta egon arren, bidezko tratamendu mediku-kirurgikoaren bidez zuzen daitezkeen gaixotasun eta lesio aktiboak. Kasu horietan, mediku-epaimahaiak beste epe bat jarri ahal izango du, ikasturtea hasiurretik, izangaiaren osasun-egoera egiaztatzeko. Hori, egin ondoren, inguruabarreko baztertze-arrazoiak desagertu diren ziurtatuko du.

B.– Ikusmena.

3.– Zuzenketarik gabeko begi-zolitasuna: ez da ikusmen arruntaren 8/10 baino txikiagoa izango begi bakoitzean.

4.– Ikusmen-eremuaren murrizketa aipagarriak.

5.– Koloreak ikusteko alterazioa.

6.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa oztopatzen duten bestelako oftalmologi prozesuak.

C.– Entzumena.

7.– Entzumen-zolitasuna (entzuteko protesirik gabekoa).

7.1 Estapedektomiagatiko otoesklerosi-zirugia osasun aurrekariak.

7.2 Patologia neurosensoriala, entzumen-zolitasun binauralaren galtzea gutxienez % 20a denean, ondorengo formularen arabera ikusita.

2013ko uztailaren 19a, ostirala

$$\% \text{ galtze binaurala} = \frac{(5x\% \text{ galtzea belarririk onenean}) + \% \text{ galtzea belarririk okerrenean}}{6}$$

7.3 Edozein belarritan % 20tik gorako entzumenzolitasun monoauralaren galtzea, ondorengo formularen arabera ikusita.

$$\% \text{ galtze monoaurala} = \left(\frac{\sum \text{galtzeak dB en 500, 1000, 2000 eta 3000}}{4} - 25 \right) \times 1,5$$

7.4 Alde bat kaltetua; 500, 1000 eta 2000 Hz bataz bestekoa belarririk onenean 25 dB baino gutxiago eta belarririk okerrenean 60 dB baino gehiago denean.

7.5 Alde bat kaltetua; elkarren ondoko bi frekuentzietan bataz bestekoa 45 dB-ko elkarren arteko asimetria aurala.

8.– Bertigo-sindromea.

9.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako otorrinolaringologi prozesuak.

D.– Nerbio-sistema.

10.– Epilepsia zein gaixotasun horren aurrekariak. Fitxatu gabeko konbultsioak. Edozein etiologiako dardara.

11.– Nerbio sistema zentralaren edo ingurukoaren eritasunak, gorputz, zentzumen edo koordinazio funtzioen galtzea edo gutxitzea eragin ditzaketenak.

12.– Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako neurologi prozesuak.

E.– Gogamen-egoera

13.– Toxikapen exogenoa adierazten duten sintomak zein zantzu kliniko biologikoak (Gernuan legez kanpoko droga-metabolitoak antzematea). Toxikomaniak. Alkoholismoa.

14.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duten bestelako buru nahaste eta jokabide nahasteak.

F.– Lokomozio-aparatua.

15.– Brigada Mugikorraren polizi egitekoa normal betetzeko beharrezko den edozein giltzadurako muga funtzionala.

16.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duen lokomozio-aparatuko beste edozein prozesu.

G.– Bihotz eta zirkulazio-sistema.

17.– Patologia iskemikoa edo horren aurrekariak.

18.– Bihotz-arritmiak, atentzio galerak edo zorabioak sor ditzaketenak.

19.– Sendagai bidezko tratamendua eskatzen duen arteri hipertentsioa.

20.– Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea mugatzen duten gorputz-adarretako bena eta linfa-zirkulazioaren asaldura kronikoa.

21.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Babeserako eta Esku-Hartzeko Unitatearen –Eskolta Atala- polizi egitekoa normal burutzea mugatzen duten bihotz eta zirkulazio- aparatuko bestelako alterazioak.

H.– Giltzurrun-sistema.

22.– Giltzurrun-gutxiegitasuna. Giltzurrun-gutxiegitasunera jo dezaketen giltzurrunetako gaixotasunak.

23.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa normal burutzea eragozten duten bestelako giltzurrun prozesuak.

I.– Arnas-aparatua.

24.– Arnas-funtzioan ondorio iraunkorrek edo noizbehinkakoak dituzten arnas-gaixotasunak.

25.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa burutzea mugatzen duen bronkioetako asma.

26.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea mugatzen duen bestelako edozein arnas-patologia.

J.– Liseri-aparatua.

27.– Hesteetako hantura-gaixotasun kronikoak.

28.– Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duten liseri-hodiaren edozein tarteko erazketak, apendizektomiak izan ezik.

29.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea mugatzen duen bestelako edozein liseri-prozesu.

K.– Hematologia.

30.– Odoleko eta organo hematopoietikoko gaixotasunak, kronikoak edo eboluzio progresiboa dutenak, mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa burutzea eragozten dutenak.

L.– Bestelako patologiak.

31.– Diabetes mellitus.

32.– Neoplasi prozesuak.

33.– Inmunologi eta erreuma gaixotasunak.

34.– Eritasun infekto-kutsagarriak.

35.– Mediku-epaimahaiaren iritziz, Brigada Mugikorraren polizi egitekoa betetzea eragozten duen bestelako edozein patologi prozesu.

II. ERANSKINA

GAITASUN FISIKOA NEURTZEKO PROBA


Gaitasun fisikoa neurtzeko proban bi ataletan banaturiko bost (5) ariketa egingo dira.

Lehenengo atalean lau ariketa egingo dira: hiru indarra neurtzekoak eta laugarrena abiadura-bizkortasuna neurtzekoa.

1. Press-bankua.

Helburua: Goiko gorputz-adarretako muskulaturaren indarraren erresistentzia.

Azalpena: Banku baten gainean, ahozgora eta zangoak flexionatuta, eskuak sorbalda baino pixka bat goragoko zabalera, (erpuaren hatz-mamiak barraren alde leun eta latza ukitzen izan behar du -1. mugimendua-), besoak guztiz flexionatu bularra barrarekin ukitu arte (2. mugimendua) eta segidan luzatu (3. mugimendua). Ariketa 40 kilogramorekin egingo dute gizonezkoek eta emakumezkoek 28 kilogramorekin, barrak 9 kilogramo dituela kontuan izanik.



Neurkera: Saiakera bat egin ahal izango da eta ez dira kontaktuko oreka mugimenduz baliatutako luzatze ariketak. Saioa hasiz gero, ezin izango da gelditu eta eskuak ezin izango dira mugitu hasierako oratzetik. Jarraibideen arabera, zuzentasunez egiten diren errepikapen kopurua zenbatuko da.

2013ko uztailaren 19a, ostirala

Baremoa: Press-bankua

Gizonak 40 Kg.	Nota	Emakumeak 28 Kg.
Errepikapenak		Errepikapenak
55	10	45
54	9,75	44
53	9,50	43
52	9,25	42
51	9	41
50	8,75	40
49	8,50	39
48	8,25	38
47	8	37
46	7,75	36
45	7,50	35
44	7,25	34
43	7	33
42	6,75	32
41	6,50	31
40	6,25	30
39	6	29
38	5,75	28
37	5,50	27
36	5,25	26
35	5	25
34	4,75	24
33	4,50	23
32	4,25	22
31	4	21
30	3,75	20
29	3,50	19
28	3,25	18
27	3	17
26	2,75	16
25	2,50	15
24	2,25	14
23	2	13
22	1,75	12
21	1,50	11
20	1,25	10
19	1	9
18	0,75	8
17	0,50	7
16	0,25	6
15	0	5

2. Beheko gorputz-adarretako esplosio-indarraren erresistentzia-testa. Hamabost (15) jauzi bertikal.

Helburua: Beheko gorputz-adarretako esplosio-indarraren erresistentzia neurtzea.

Azalpena: Hamabost (15) jauzi egin behar dira jarraian, ematen den denboran (30 segundotan). Jauzi bakoitzean ahalik eta goren igo behar da. Izangaia plataformaren gainean tente jarriko da, eskuak gerrian jarrita eta oinak aurrerantz begira sorbalden zabaleran zabalduz (1. mugimendua), ariketa egiten hasteko zain azertzaileak hala agindu arte. Plataforma utziz, gorantz abiatzeko fasean zein plataforma ukitzean hankak erabat luzaturik izan behar dira.



Neurkera: Saiakera bat egin ahal izango da. Neurgailuak zenbat jauzi egin den eta bakoitzean zein altuera lortu den neurtuko du.

Baremoa: Beheko gorputz-adarretako esplosio-indarraren erresistentzia-testa. 15 jauzi bertikal

Gizonak			Emakumeak	
Batez besteko altuera	Nota		Batez besteko altuera	Nota
34	10		32	10
33 -33,9	9,5		31 -31,9	9,5
32 - 32,9	9		30 -30,9	9
31 - 31,9	8,5		29 -29,9	8,5
30 -30,9	8		28 - 28,9	8
29 -29,9	7,5		27 - 27,9	7,5
28 - 28,9	7		26 - 26,9	7
27 - 27,9	6,5		25 -25,9	6,5
26 - 26,9	6		24 - 24,9	6
25 -25,9	5,5		23 -23,9	5,5
24 - 24,9	5		22 -22,9	5
23 -23,9	4,5		21 -21,9	4,5

Gizonak			Emakumeak	
Batez besteko altuera	Nota		Batez besteko altuera	Nota
22 -22,9	4		20 -20,9	4
21 -21,9	3,5		19 -19,9	3,5
20 -20,9	3		18 -18,9	3
19 -19,9	2,5		17 -17,9	2,5
18 -18,9	2		16 -16,9	2
17 -17,9	1		15 -15,9	1
16,9	0		14	0


3. Beso-trakzioa barra finkoan (Gizonak). Beso-flexio mantendua barra finkoan (Emakumeak).

Beso-trakzioa barra finkoan (Gizonak)

Helburua: Goiko gorputz-adarretako muskulaturaren indarraren erresistentzia.

Azalpena: Barra finko batera igota, barra ahurrekin oratuta eta eskuetako hatzamarrak aurrerantz begira, eskuak sorbaldaren zabaleran jarrita, besoak luzatuta eta hankak gutxi gorabehera 90°ko angeluan gurutzatuta eta flexionatuta (1. mugimendua), hautagaiak besoak tolestuko ditu eta gorputza jasoko du, harik eta kokotsa barratik gora igo arte (2. mugimendua). Jarraian gorputza jeitsi egingo du hasierako posizioa hartu arte – 3. mugimendua-.Ariketa hau ahalik eta gehienetan egingo da.

Saioa hasiz gero, ezin izango da gelditu eta eskuak ezin izango dira mugitu hasierako oratzetik. Ezin daiteke kulunkatu. Horretarako, hautagaiaren aurrean listoi bat jarriko da, bi euskarrik eutsita, barraren bertikaletik 35 cm-ra . Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke.



Neurkera : Saiakera bat egin ahal izango da. Kokotsa barratik gora igo arteko errepikapenak hartuko dira kontuan, azalpenean agertzen den bezala egindako saiakerak eta listoia behera bota gabe egiten direnak. Hautagaiak listoia lurrera botatzen badu ariketa amaitutzat emango da eta ordura arteko egindako errepikapenak hartuko dira kontuan.

Baremoa: Beso-trakzioa barra finkoan (Gizonak)

Gizonak	
Errepikapenak	Nota
20	10
19	9,5
18	9
17	8,5
16	8
15	7,5
14	7
13	6,5
12	6
11	5,5
10	5
9	4,5
8	4
7	3
6	2
5	1
4	0

Beso-flexio mantendua barra finkoan (Emakumeak)

Helburua: Goiko gorputz-adarretako muskulaturaren indarraren erresistentzia.

Azalpena: Hautagaia banku batera igo behar da esku-ahurrak eta hatzamarrak berari begira (ikusitako beheko irudia) eta eskuak sorbaldaren zabalera. Hautagaiak besoak osorik tolestu behar ditu eta gorputza jaso, harik eta kokotsa barratik gora igo arte (1. mugimendua). Oinek bankua uzten dutenetik, jarrera horretan egon beharko du ahalik eta deborarik luzeenean

Ezin daiteke kulunkatu. Horretarako, hautagaiaren aurrean listoi bat jarriko da, bi euskarrik eutsita, barraren bertikaletik 35 cm-ra.

Ezin da barra kokotsaz ikutu.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke.



Neurkera: Saiakera bat egin ahal izango da. Kronometroa martxan jarriko da oinek bankua uzten dutenetik hasita. Proba amaitutzat emango da kokotsa barra horizontala baino beherago dagoenean edo listoia botatzen denean.

Baremoa: Beso-flexio mantendua barra finkoan (Emakumeak)


Emakumeak	
Denbora	Nota
1'55"	10
1'49"-1'54"9	9,5
1'43"-1'48"9	9
1'37"-1'42"9	8,5
1'31"-1'36"9	8
1'25"-1'30"9	7,5
1'19"-1'24"9	7
1'13"- 1'18"9	6,5
1'07"- 1'12"9	6
1'01"- 1'06"9	5,5
55"- 1'00"9	5
49"-54"9	4,5
43"-48"9	4
37"-42"9	3
31"-36"9	2
25"-30"9	1
24"	0

4. Oztopoekin abiadura-bizkortasuna neurtzeko testa.

Helburua: Mugimendua burutzean, abiadura-bizkortasuna neurtzea.

Azalpena: Proba hasteko, hautagaia irteera posizioan jarriko da irteera-marraren atzean, lehen hesia dagoen tokian. Aztertzaileak adierazten dionean ondorengo marrazkian agertzen den ibilbidea egingo du, ahalik eta arinen eginez eta beti kontrako topagunerantz eginez, hesi baten azpitik sartuz eta bi aldiz hesi gaitetik igaroz. Denbora zelula fotoelektrikoen bitartez erregistratuta geratuko da (ibilbidearen hasieran eta amaieran). Saiakera baliogabetzat emango da hautagaiak, ariketa egiten duen bitartean, zirkuituan dagoen elementuren bat botatzen duenean eta aldatzen duenean (hesiak eta/edo banderatxoak lekuz aldatzen dituenen).

2013ko uztailaren 19a, ostirala



Neurkera: Ariketa bi aldiz egingo da eta markarik onena hartuko da kontuan.

Baremoa: Oztupoekin Abiadura-bizkortasuna testa

Gizonak	Nota	Emakumeak
8"50	10	9"20
8"65 – 8"51	9,5	9"35 – 9"21
8"80 – 8"66	9	9"50 – 9"36
8"95 – 8"81	8,5	9"65 – 9"51
9"10 – 8"96	8	9"80 – 9"66
9"25 – 9"11	7,5	9"95 – 9"81
9"40 – 9"26	7	10"10 - 9"96
9"55 – 9"41	6,5	10"25 – 10"11
9"70 – 9"56	6	10"40 – 10"26
9"85 – 9"71	5,5	10"55 – 10"41
10"00 - 9"86	5	10"70 – 10"56
10"15 – 10"01	4,5	10"85 – 10"71
10"30 – 10"16	4	11"00 – 10"86
10"45 – 10"31	3,5	11"15 – 11"01
10"60 – 10"46	3	11"30 – 11"16
10"75 – 10"61	2,5	11"45 – 11"31
10"90 – 10"76	2	11"60 – 11"46
11"05 – 10"91	1	12"75 – 11"61
11"06	0	12"76

Bigarren atalean erresistentzia aerobikoa neurtzeko ariketa bakarra egingo da.

1. Course-Navette erresistentzia-testa.

Helburua: Gehieneko erresistentzia aerobikoa neurtzea. Proba honetan hautagaiak intentsitate handi edo txikiko esfortzuak egiterakoan duen erresistentzia maila neurtuko da denbora luze edo motzagoan.

Azalpena: Ahalik eta denborarik luzeenean, joan-etorrian, 20 metroko distantzia egitean datza. Abiadura minuturo igo behar da (1 min.), gutxi gorabehera. Ibiltarte bakoitzean izan beharreko abiadura entzuteko gailu baten bidez markatuko da, tarte erregularretan soinu bat sortzen duena.

Joan-etorriak egiten jarraituko du hautagaiak, harik eta entzuteko gailuak adierazten duen unean lerroa zapaltzera iritsi ezin den arte.

Hautagaiak entzuteko gailuak adierazten duen unean marra zapaltzen ez badu, aldez aurretik jakinaraziko zaio, eta bigarrenaz jakinarazten bazaio hautagaia baztertu egingo da.

Neurkera: Saiakera bat egin ahal izango da. Hautagaiak behar bezala betetzen duen azken palierra neurtuko da.

Baremoa: Course-Navette

Gizonak			Emakumeak	
Aldia	Nota		Aldia	Nota
14	10		13	10
13 ½	9,5		12 ½	9,5
13	9		12	9
12 ½	8,5		11 ½	8,5
12	8		11	8
11 ½	7,5		10 ½	7,5
11	7		10	7
10 ½	6		9 ½	6
10	5		9	5
9 ½	4		8 ½	4
9	3		8	3
8 ½	2		7 ½	2
8	1		7	1
7 ½	0		6 ½	0